

EMAKUMEEN AGERIKOTASUN ETA BALIO BERA

HAUR HEZKUNTZA

ZER IKUSTEN ETA IKASTEN DUTE HAURREK HAUR HEZKUNTZAN?

Irakasle gehienok pentsatzen dugu **berdin hezten ditugula** ikasleak neska edo mutila izanik. Gisa berean zuzentzen gara beraiengana, azalpenak eman eta **gauza berak eskatzen dizkiegula**. Hain zuzen ere, gauza berak ikusten dituzte eta, neurri handi batean, ikusten dutena imitatuz ikasten dute, eskolan inguruan dituzten helduak, batez ere irakasleak, imitatuz ikasten dute. **Kontua da zer ikusten duten.**

- ▶ Zer ikusten dute eskolaurreko neskek eta mutilek? nolakoa da inguruan dituzten eta eredutzat hartzen dituzten helduak, nolakoak dira beraien irakasleak? nolakoak dira jantokiko, autobuseko eta abarreko langileak?
- ▶ Gizon eta emakumeen eskola bat ikusten dute? emakumeen eskola bat? gizonen eskola bat? zein da batzuen eta besteen papera?
- ▶ Nolakoa da eskola horretan, bere horma-irudi, kartel, ipuin eta abarretan islatzen den mundua? gizon eta emakumeen mundu bat da? gizonen mundu hutsa da, emakumerik gabekoa?
- ▶ Bere material eta jarduerak bezala? nork erabiltzen ditu eta nork ez?

ZEIN PERTSONA HELDU IKUSTEN DITUZTE ESKOLAN?

- ▶ Maistrak, baina ez maisuak? maisuak bakarrik Lehen edo Bigarren Hezkuntzatik aurrera?
- ▶ Psikologoak (emakumezkoak) Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta psikologo eta orientatzaileak (gizonezkoak) Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan?
- ▶ Ziklo edo etapako gizonezko koordinatzaile edo zuzendariak, eta ez emakumezko koordinatzaile edo zuzendariak?
- ▶ Jantokiko begiraleak (emakumezkoak) eta sukaldariak (gizonezkoak)? autobus begiraleak (emakumezkoak) eta autobus gidariak (gizonezkoak)? garbiketako emakumeak eta mantentze-lanen arduradunak?
- ▶ Amak, jolastokian eta bileretan, baina ez aitak?

ZER IKUSTEN DUTE NESKEK ETA MUTILEK JOLASTOKIAN?

- ▶ "Normala" da mutilak jolastokia hartzea eta beste mutil batzuei eta neskei bultzatzea eta baita jotzea ere?
- ▶ Mutilak jolaserako tresnak "okupatzea" eta neskak bere burua zokoratzea bakean jostatu ahal izateko?
- ▶ Neskak beti neskekin jostatzea, jolas zehatz batzuetara gainera, eta



irakasleak

Hezkidetzak adierazi nahi du sexuen arteko elkarrekintza, ohiko estereotipoak gainditze aldera, neska eta mutilendako hezkuntza integral bat lortzeko xedearrekin. Honek eskatzen du **irakasleek** gizarteak jarrera kritikoa izatea "normalizat" jotzen dituen portaera sexistekiko, eta bigarren maila batean, eguneroko eskola jardueran atzematen ahal diren portaera abusuzko, diskriminatzaile eta sexisten aurrean ez ikusiarena ez egitea.

azterketa sistematikoa

Honi dagokionez, nahitaezkoak dira **behaketa eta hausnarketa sistematikoa**, "pedagogia izkutua" ikusgarri egin eta Haur Hezkuntzako eguneroko eskola alderdien "normaltasuna" ezbaian jarriko dutenak, ondokoak besteak beste:

materialen erabilera

- Ikasgela bakoitzeko eta, orokorrean zikloko **horma-irudiak, kartelak, irudiak**, pertsonaia eta pertsonak, dekoratuak, irudikatutako espazioak, seinaleak, kartelak, etab. Eskolak balioa eta garrantzia ematen die elementu grafiko horiei. Ba al dugu emakumerik? zein espaziotan? zein lanean? etab.

- **Txoko bakoitzaren eta bere materialen erabilera**. Bada materialik zainketa jolas sinboliko baterako? mutilek ere erabiltzen dute? sustatzen al dugu erabilera hori? neskek erabiltzen dute psikomotrizitate materiala, lanabes, makina, auto eta abarrekin egiten diren jolas sinbolikoak? erabilera hori sustatzen eta proposatzen dugu?

espazioen erabilera

- **Ikasgelatik sartu eta ateratzea**, jantokia, psikomotrizitatea, etab.: liskarrak ilaran hartzen den tokia dela eta, bultzadak, lasterkaldiak, harrapaketak... Mutilek lehenengoak izan nahi dute beti? utziko al diegu neskek indarrez alboratu arren? esku-hartuko dugu? txandak eginen ditugu?

- **Jolastokien erabilera** eta bertako jolaserako elementu eta materialena. Ekintza jolaserako, kirolerako eta antze-koetarako espazioak daude soilik? jolas sinbolikorako espaziorik bada erabiltzen al dituzte neskek txirristak, kulunkak, barrak, etab.? esku-hartuko dugu? irakatsi eta animatu diegu, jostatuko gara?

- Ikasgelako eta eskolako **espazio zentral eta komun**en erabilpena. Nesken eta mutilen erabilerak presentzia bera dauka?

hizkuntzaren erabilera

- **Hizkuntzaren erabilera eta irakasleen elkarrekintza** neska eta mutilekin. Neskek aipatzen ditugu, haiengana zuzentzen gara, ikustarazten eta onartzen ditugu, kontuan izaten ditugu? Neskek eta emakumeak aipatzen ditugu, kontatzen al ditugu beren historiak, beharrak, gizateriari egindako ekarpenak?

- **Hizkuntzaren erabilera** saio kolektibo eta parte hartzaileetan. Berdin ematen al diegu hitza neskei eta mutilei? bermatzen al dugu berdin parte hartzen dutela gai, jarduera, kontakizun, anketa etab. mota orotan?

- **Ebaluazioak eta txostenak**: ebaluatutako alderdiak, hizkuntza eta neska eta mutiletatik espero daitekeena. "Normaltzat" jotzen dugu jokaera, ikaskuntza, portaera, errendimendu, etab. mota bera neskendako eta mutilendako? batzuekin eta besteekin berdin baloratzen, barkatzen, exijitzen dugu eta ondorio berak ateratzen ditugu?

protagonismoa

- **Lanak eta ardurak esleitzea** ikasgelan, jolastokian, jantokian... Bermatzen al dugu neskek eta mutilek gisa berean lan eta protagonismo mota oro betetzea: materiala atera eta jasotzea, garbitzea, jendaurrean hitz egitea, mandatuak egin, oharrak eman...?

mutilak beti mutilekin jostatzea, eta beste jolas zehatz batzuetara?.

- ▶ Neskek aintzat hartuak izan nahi badute, mutilak bezalakoak izan behar dute, hau da, mutilekin jostatu behar dute mutilen jolasetan?
- ▶ Neskek ez dute jauzirik egiten, ez dute eskalatzen, ez dira arrastaka edo lasterka ibiltzen, soilik eseri eta solasean aritzen dira?
- ▶ Mutilak ez direla lagun minak, ez dute itxaroten, entzuten, irri egiten eta solastatzen, lasterka eta oihuka aritzen dira soilik?

ZER IKUSI ETA ENTZUTEN DUTE ESKOLAN, IKASGELAN?

- ▶ Irakasleak ez dituela neskek aipatzen?
- ▶ Arreta handia jartzen diela mutil batzuei eta batez ere beraiei zuzentzen zaiela? klasearen ibilbidea baloratzen duela ikasle talde horren ibilbidearen arabera?.
- ▶ Baloratzen duela eta dioela "normala" dela mutilak marmartiak, mugituak eta bihurriak izatea, baina neskek ez ordea?
- ▶ Baloratzen duela eta dioela "normala" dela neskek ongi heziak, langileak eta saiatuak izatea, baina mutilak ez ordea?
- ▶ Mutilei eskatzen diela mahaiak mugitzea eta neskei mahaiak garbitzea? eskatzen diela mutilei jostatzea eta neskei hori jasotzea?
- ▶ Txokoak betetzen dituela "mutilen" material eta jokoekin, eta guztiek, neskek eta mutilak, horiek ongi erabiltzea exijitzen duela, baina aldi berean ez duela eskatzen mutilek erabiltzea "neskenak" diren panpinak eta bestelako material eta jokoak?
- ▶ Bere ikasleengan, neskeengan eta mutileengan, baloratzen duela, adibidez, "maskulinoak" diren adorea, erabakitze indarra eta kemena, baina ez "femeninoak" diren irmotasuna, pazientzia, zehaztasuna eta enpatia?
- ▶ Garrantzia kentzen diola mutilek neskei gonak altxatzeari edo nesken komunean sartzeari edo bertan zelatan ibiltzeari?
- ▶ "Normaltzat" jotzen dituela ("haurren kontuak, garrantzirik gabekoak") mutilak neskei egindako bultzadak, "txantxak", irainak...?

BERDINTASUNA ALA BERDINTASUN EZA IKASTEN DUTE?

Aurreko galderei emandako erantzuna baiezkoa bada, eta eskolan ikasten dutenez egunero ikusten eta bizitzen dutena, neskek eta mutilek ikasiko dute, hain zuzen, gauza bera: berdintasun eza. Ondokoa ikasiko dute:

- ▶ pertsonak bi kategoria desberdinetan sailkatzen direla.
- ▶ neskek (emakumeak etorkizunean) ahaztuak eta alboratuak, bigarren mailako ikasleak gaur eta bigarren mailako herritarrak etorkizunean.
- ▶ mutilak (gizonak etorkizunean) aintzat hartuak eta prestigioarekin, ikasle pribilegiadunak gaur eta lehen mailako herritarrak etorkizunean.
- ▶ Hau da, neskek eta mutilak (pertsonak) eskubide eta betebeharrak desberdinekin, eguneroko eskola bizitza desberdinekin, eskola eremu berdinetan egon arren, langile berdinekin, programa eta material berdinekin egon arren.

HEZKIDETZAK berarekin dakar galdera horiek eta antzeko beste batzuk sistematikoki eta periodikoki egitea, bermatzeko erantzuna **EZEKOIA** izan dadila, bermatzeko neskek eta mutilek gauza bera ikasi dezaten: **BERDINTASUNA**.



AUTONOMIARAKO HEZI

Hezkuntza


2009-2011 Berdintasunerako Plana

TXOKOETAN LAN EGITEKO
JARRAIBIDEAK

hezkidetzalantzen

JOLASA TXOKOETAN. ERABILPENERAKO JARRAIBIDEAK

- ▶ Txokoetan egiten den jolasa **sinbolikoa da batez ere**, beraz jolas horren ikaskuntza inplizituari (kulunkatzea, manipulatzeko, igotzea, jaitea, pisatzea, biltzea, etab.), gehitzen zaio jolasaren edukiaren **adierazgarritasun esplizituaren balioari** zor zaien ikaskuntza (etxetxoa, denda, antzerkia, ibilgailuen eta lanabesen tailerra...).
- ▶ Bigarren faktore honek behartzen gaitu kontuan hartzera gure ikasleen esku jarriko **ditugun txokoak, baita bertan jarriko ditugun materialak eta jolasak ere**. Asmatzen badugu edo ez, aukera emanen diegu gure neska eta mutilen jostatzeko aukerak eskaintzeko eta alderdi batzuk lantzeko.
- ▶ Helburua izanen litzateke gure taldeko pertsona bakoitzarendako **aukera anitzak eskaintzea**, modu sistematikoan neurtzea gure ikasleen hezkuntza prozesuan duen benetako erabilera eta bere ondorioak, eta horiek egokitzen joatea pertsona edota talde zehatz bakoitzaren beharrei eta garapenari.
- ▶ Aurrekoa kontuan izanik, laburtzen ahal ditugu hezkidetzarako txokoaren erabilpenaren ezaugarriak **oinarriko hiru ildo errazetan**:
 1. Trebetasun "femeninoen" balioa berriro emanen dieten guztiendako txoko edo jarduerak.
 2. Trebetasun "maskulinoen" txoko eta jarduerak guztiendako.
 3. Neskekin eta mutilekin aldeztu aurretik aparte egindako lana.



balioa ematea trebetasun "femeninoen": etxea, denda, erizaindegia, ileapaindegia...

Hezkidetzak lortu nahi du pertsonen **hezkuntza integrala**, neska eta mutilendako, bizitzaren alderdi guztietarako, bai esparru pertsonal, familiar eta etxekoari dagokien eginkizunetako, bai bizitza publiko, pertsonal eta sozialerako beharrezkoak diren eginkizunetarako.

Beraz, **berdintasunerako hezkuntza EZIN** da oinarritu eredu femeninoaren gutxiespen eta mespretxuan, ezta eredu maskulinoaren orokortzean ere, neska eta mutilei ezartzen ahal zaien eredu bakar gisa. Hezkidetzak jaso behar ditu bi eredu **balioak eta trebetasunak** eta horiek eskaini ikasleei, bai neskei eta bai mutilei, modu horretan horietako bakoitzak balio horiek garatu ditzan bere ezaugarri eta premia sozial eta pertsonalekin bat.

Haur Hezkuntzako gure lanean, hori posible da soilik erabiltzen baditugu **eredu femeninoaren balio, ezagutza,**

trebetasun eta baliabideei balio emanen dieten txokoak, materialak, jolasak eta jarduerak, besteak beste : **zainketaren etika, harrera, entzutea, enpatia, kontzentrazioa, ardura, lan-kidetzak, afektibitatea, komunikazioa, multiatazako garatzeko ahalmena, elkartasuna, etab.**

Hau da, lortzen badugu gure ikasle guztiak, neskak eta mutilek, trebetasun garrantzitsu horiek guztiak xertatzea (bai eremu pribaturako, bai eremu publikorako) beren ikaskuntza eta curriculum pertsonalera. Horrek eskatzen du sarritan erabilera eta moda nagusiekin kontraesanetan dauden txoko eta material egokiak aukeratzea eta jolasak eta jarduerak bultzatzea (kiroletakoak, lehiarenak, etab.)

Eta berarekin dakar ere bai **kolektibo horietako bakoitzarendako planteamendu espezifiko bat, neskena eta mutilena**, eta horiekin egin beharko

dugu lan, talde horietako bakoitzak aldarrikapen eta balio emate planteamendu honen aurrean ezagutza, ohitura, aurreritzi eta jokaera desberdinak izanen dituztelako, gustutik eta ilusiotik hasita, lotsa eta ukapeneraino.

Txokoak eta bere material eta jolasak bermatu beharko dute **bizitza pribatu eta familiarerako beharrezkoak diren trebetasunak** ikastea eta baloratzea, adibidez:

- **Beren ahalmen afektiboen erabilera eta gozamina: sentimenduak, etab.**
- **Zainketa, elikadura eta norberaren eta beste pertsonen osasuna.**
- **Lan horiek egitea zenbat kosta den ikuste eta bere garrantzia baloratzea, bai arlo pribatuan eta bai publikoan.**
- **Autonomia pertsonala.**
- **Ardurakidetzak eta familia eta lana bateratzea.**



AUTONOMIARAKO HEZI

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

TXOKOETAN LAN EGITEKO
JARRAIBIDEAK

hezkidetzalantzen

► **EZ DA BEHARREZKOA IKASGELA TXOKOETAN BANATUA IZATEA.** Espazio bakarreko ikasgela bat izaten ahal da egun batean, etxe bat, sukalde bat, denda bat, garbitegi bat hedaketa eta lisaketarekin, erizain-degi edo ospitale bat, gimnasio bat, etab., bertan txoko moduko jarduerak egin ahal izateko. Horretarako aski da proposatzea materialak, jarduerak eta jolas sinbolikoak, modu alternatibo eta osagarrian, egunen arabera.

trebetasun "maskulinoak" guztiondako:

Eredu maskulinoaren ezagutzen, trebetasunen eta baliabideren beharra azpimarratzeaz gain, arreta deitu beharko zen horietako batzuen **gainbalorazioan eta desbirtuazioan**, agerikoa baita izan behar ditugula **balio "maskulinoen" ikaskuntza ahalbidetuko duten txokoak, materialak, jolasak eta jarduerak**, besteak beste:

lehia, asertibitatea, ausardia, erabakiak hartzea, arriskua, jarduera fisikoa, autoestimua, jarduera publikoa, teknologia, espezializazioa, irabazteko gustua, makinaren erabilera, etab.

Edozein pertsonarendako, baina batez ere emakumeendako, gizon edo emakume izan, bizitza "oso" baterako oinarrikoak diren ikaskuntzetara sarrera bermatzea guztiondako, berarekin dakar neska eta mutilendako planteamendu espezifikoa eta desberdina egitea, erabat desberdinak izanen diren ohiturak, aurreiritziak eta jokoak izanen dituztelako, ezjakintasuna eta beldurretik hasita, nagusitasuna eta plazereraino.

Txokoek eta bertan erabiltzen diren materialek eta jolasek bermatu beharko dute **bizitza publiko, sozial eta laboralerako**

beharrezkoak diren trebetasunen ikaskuntza, besteak beste:

- **Ahalmen fisikoak erabili eta gozatzeta: indarra, abiadura, etab.**
- **Lanabesen eta teknologiaren erabilera.**
- **Eraikuntzak egitea.**
- **Parte hartze publiko pertsonala eta adierazgarria jardueretan, jolasetan eta aisialdian.**
- **Jarduera fisikoa eta kirola jendaurrean garatzea.**
- **Ardurak hartzea jarduera kolektiboen antolaketan, kudeaketan eta antzezpenen.**

neskekin eta mutelekin aldez aurretik aparte egindako lana

Talde berezituak, lan pertsonalizatua eta laguntza saioak, gure ikasleen aldez aurreko gabeziak konpentsatze aldera, gainontzeko ikaskideen ikasteko eta hobetzeko aukera erreal berak izan ditzaten.

Ez da aski neskak eta mutilak elkarrekin jolastera joatea etxetxoaren txokora edo psikomotrizitate ikasgelara material berdinarekin, arropa egokiarekin eta denbora berean. Benetako **hezkidetzak berarekin dakar berdintasun ezaren lan konpentsatzailea**: mutilek trebetasun "femeninoekiko" duten ezjakintasun, aurreiritzi, beldur eta ohitura ezarena, eta neskena trebetasun "maskulino" horiekiko, horrela batzuek eta besteek bi ikaskuntza horiek aukera berdintasunean egin ahal izateko.

NESKEKIN, bizitza publiko, sozial eta

laboralerako beharrezkoak diren trebetasunak ikasten, garatzen, erabiltzen eta erabiltzen ausartzeko eta beldurra galtzeko. Trebetasun horien artean ondokoak aipatzen ahal dira: **indarra, oreka eta ausardia; jakin-nahia, kemena eta erabakiak hartzea; erorketak eta kolpeak, eta berarekin dakarten min fisikoa gainditzea; nabarmentzeko, goian egoteko ahalmena; helburuak jartzeko eta erronkak gainditzeko gustua; autoestimua eta beren buruan konfiantza izatea.**

NESKEKIN, igotzeari eta altura irabazteari beldurra galtzeko, **modu horretan beren ahalmen eta aukera fisiko guztiak garatuz. Goitik jauzi egiteari, hegan egiteari beldurra galtzeko; tokiarik altuenetik jauzi egiten disfrutatze-ko; beren gorputzaren eta bizitzaren**

ardura hartzea eta horrekin disfrutatzea. **MUTILEKIN**, bizitza pertsonal eta familiarerako beharrezkoak diren trebetasunei beldurra uxatzeko, ikasteko eta disfrutatze-ko; besteak beste **jostea, eros- tea, janaria prestatzea, garbitzea eta beren burua zaintzea; beren buruaz arduratzeko, baita beste pertsona, animalia, landare eta abarrekin ere.**

MUTILEKIN, afektibitateari beldurra galtzeko eta beren sentimenduak, beldurrak eta zalantzak nola adierazi jakiteko, bere gorputza eta besteena nola aurkitu eta ezagutzeko, beren gorputza erabiltzen jakitea komunikatzeko, hitz egiteko, mugitzeko, harremanak izateko, ukitzeko, elkarri ezagutzeko eta besarkatzeko, naturaltasunez maitatzeko. Eta horrekin guztiarekin disfrutatze-ko.



HAUR IPUINAK

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

GIZONAK ETA EMAKUMEAK, NORK ZER?

hezkidetza **lantzen**

LOTU EZAZU, BAKOITZAK ZER ERABILTZEN DUEN ▶ Gezien bidez elkarri lotu andrea eta jauna, printzesa eta printzea, ipuin gehienetan erabili ohi dituzten objektuekin.



LABURPEN KOADROA EGIN ARBELEAN. IRUZKINAK EGIN

- ▶ Ba al da objekturik andrearekin lotu izan dena, eta aldiz, jaunarekin ez? zergatik? jaun batek ezin du halakorik erabili? zergatik ez du halakorik ipuinetan erabiltzen?
- ▶ Ba al da objekturik jaunarekin lotu izan dena, eta aldiz, andrearekin ez? zergatik? andre batek ezin du halakorik erabili? zergatik ez du halakorik ipuinetan erabiltzen?
- ▶ Egin ezazu zerrenda bat gizonek eta emakumeek ipuinetan erabiltzen dituzten objektuekin. Eta beste zerrenda bat errealitatean erabiltzen dituztenekin.



HAUR IPUINAK

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

EMAKUMEAK ETA GIZONAK, ALTERNATIBAK

hezkidetzalantzen

DENBORA SEKUENTZIAK ▶ Eszenak antolatu eta ipuin hau konta ezazu.



LOTU IZATZU MARRAZKIEN ATAL DESBERDINAK

- ▶ Aipatu itzazu ipuinaren protagonista den emakume suhiltzaileak egiten dituen gauzak.
- ▶ Azaldu ezazu zer gertatuko litzatekeen hurrengo eszenan eta nola bukatuko litzatekeen istorioa.



HAUR IPUINAK





Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

EMAKUMEAK ETA GIZONAK, NORK ZEIN ESPAZIO?

hezkidetzalantzen

MARRAZKIA ▶ Lotu ezazu gezi baten bidez kanpo aldeko pertsonaia bakoitza ipuin gehienetan izan ohi duen etxearekin.



GALDERAK, IRUZKINAK, JARDUERAK

- ▶ Bada alderik gizonezkoen eta emakumezkoen etxeen artean? zergatik?
- ▶ Aukera itzazu bi pertsonaia eta beren etxeak eta konta ezazu ipuin bat. Bertan agertu beharko dute bi pertsonaiek eta beren etxeek.
- ▶ Orain trukatu beren etxeak eta konta ezazu ipuin bat non bi pertsonaia eta beren etxe berriak agertuko diren. Pertsonaien izateko modua aldatzen da etxeak aldatu eta gero, gauza desberdinak egiten dituzte? zergatik?



HAUR IPUINAK







Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

EMAKUMEAK ETA GIZONAK, ALTERNATIBAK

hezkidetza **antzen**

PUZZLEAK OSATU ▶ Marrazkiak koloreztatu, lerro laranjetatik ebaki eta puzzleak egin.



LOTU ITZAZU MARRAZKIEN ATAL DESBERDINAK

- ▶ Lotu itzazu zatiak, horietako hiru eta osatu pertsonaia bat. Aurkeztu lortu duzun pertsonaia, esan ezazu nolakoa den, nola deitzen den, zer egiten duen, zer duen gustuko... ("... deitzen da ... urte ditu, ... da eta asko gustatzen zaio...").
- ▶ Zati guztiak bat egiten dute elkarrekin? pertsonaia bakoitzak besteen lanbide bera izaten ahal du? pertsonaia bakoitzak lan guztiak egiten ahal ditu? zergatik?
- ▶ Esan ezazu zein lan egiten dituzten emakumeek ipuinetan. Gizonek ere egiten ahal dituzte lan horiek?
- ▶ Esan ezazu zein lan egiten dituzten gizonek ipuinetan. Emakumeek ere egiten ahal dituzte lan horiek?